

Kaixo familia!

Ba al dakizu irakasle bat gaixotzen denean, hainbat egunetan ez dela ordezkatzen?

Erkidegoan guztira 44.000 lanegun ordezkatu gabe geratzen dira ikasturtero.

Ordezkapenak lehen egunetik!

Ba al dakizu behin behineko langileen kopuru altua dela eta urtez urte klaustroak aldaketa handiak izaten dituztela?

Behin-behinekotasuna gutxitu!

Ba al dakizu eskolako liburutegi eta mediatekak sustatu ondoren, giza baliabide gabe uzten ari dela plaza murriztu edo desagertu delako?

Liburutegiak bizirik!

Ba al dakizu gela bakoitzean gero eta ikasle gehiago dagoela eta jarraipen pertsonala egitea gero eta zailagoa dela? 2008 tik gaurdaino 39.000 ikasle gehiago daude hezkuntza publikoan eta irakasle kopurua ez da maila berean igo.

Ratioak gutxitu, plantillak handitu!!

Ba al dakizu Heziketa Bereziko ikasleek dagozkien baliabideak baino gutxiago jasotzen dituztela?

Ikasle guztien duintasuna bermatu!

Ba al dakizu eskolako sukalde eta garbiketa azpikontraten bidez kudeatzen dela gero eta gehiago? Eta langile propioek gero eta baldintza okerragoetan egiten dutela lan?

Prekariataterik ez!

Ba al dakizu 0-2 urteko hezkuntzak ez duela pribilegioa izan beha eta haur bakoitzeko urtean 2000€tik gora kostatzen dela?

Haurreskolak doakoak!

Ba al dakizu hezkuntzarako aurrekontua 2009an baino 162.000.000 € gutxiago bideratzen dela eta aldiz bankuen erreskatea ordaintzeko zor publikora ia 1.000.000.000 € gehiago?

Hezkuntzan inbertsioa handitu!!!

Ba al dakizu Heziberri bitartez LOMCE guztia aplikatzen ari dela adimistrazioa?

Hiru sindikatuok, Euskal Herriko Eskubideen Karta Sozialean jasoa dagoen hezkuntza ikuspegiakin bat egiten dugu: “pertsona guztiek hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea dute, aniztasuna integratuko duena eta berdinzalea izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetz) eta ikuspegi kritikoa sustatuko duena. Hezkuntza sistema propioa izango da eta euskal curriculum deritzana garatuko duena aldarrikatzen dugu”.

Kalitatezko Hezkuntza publiko baten alde borrokatzeko guztion indarra behar dugu!

Hau dela eta, datorren urriaren 28an, arratsaldeko 17 etan, Hezkuntza Sailak ezarri dituen murrizketak eta hezkuntza politika salatzen LAB, ELA eta STEILAS sindikatuak, Donostiako Hezkuntza Lurralde ordezkariaren aurrean deitu duten manifestaziora gonbidatzen zaituztegu.

Honako ekintzak burutuko dira:

- Aurpegi-margoketa
- Globoak
- Musika
- Photocall
- Manifestazioa
- Zumba saioa

Bertan elkartuko gara!

*Eguraldiaren arabera ekintzaren bat bertan behera gera daiteke.

